

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernua pozik Toki Administrazioaren Erreforma Legea Parlamentuan onartu ondoren

Elizalde kontseilariak agente politiko eta sozial askoren hiru urteko parte-hartzearen lana nabarmendu eta eskertu du

Osteguna, 2019.eko urtarrilak 31

Foru Gobernua pozik agertu da gaur goizean Nafarroako Toki Administrazioa Aldatzeko Foru Legea onartu delako, Foru Parlamentuko Osoko Bilkuran bozketa egin eta gehiengo osoarekin onartu ondoren, Geroa Bai, EH Bildu eta Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai eta I-Eren aldeko botoekin.

Legea onartuta, hiru urtetik gora garatutako parte-hartze eta lan prozesuari amaiera eman zaio. Prozesu horren agente nagusiak alkateak eta Nafarroako toki-erakundeetako hautetsiak izan dira, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioa Isabel Elizalde kontseilariak adierazi duenez.

Bilkuran, in voce zuzenketa bat eta boto partikular bat eztabaidatu eta onartu dira, Geroa Bai, EH Bildu eta I-Ek proposatuta, langileen inguruan, eta, zehazki, Nafarroako Toki Administrazioen negoziatio-mahai orokor bakarra eratzeke, “borondatez, funtzionarioen edo lan-kontratadun langileen baldintzen negoziatio kolektiboa zentralizatzeko” helburuarekin. Enplegatu publikoen lan-baldintzak bermatze aldera, talde politikoek lege-proposamen bat aurkezteko konpromisoa hartu dute, gaur proposatutako in voce bi zuzenketa (UPN eta PPren oposizioarengatik izapidetzeko onartu ez direnak) edukia jasoko duena.

Komunikabideei egindako adierazpenetan, Elizalde kontseilaria pozik agertu da bozketaren emaitzarengatik, eta "historikotzat" jo du, aurreko araua onartu zenetik ia hogeita hamar urte igaro baitira.

Toki Erreformaren onarpena “kohesionatua nahi dugun Nafarroarako lehen urratsa da, lurralde-orekarekin eta herritarrengandik hurbil dauden zerbitzuekin” adierazi du.

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa buru duten toki-erakundeek nahiz adituen taldeek, langileen taldeek, sindikatuek eta gobernuaren departamentu ezberdinek parte hartuta testua egin izanaz “harro” agertu da Elizalde, eta horiek prozesu horretan egindako lana eskertu du bene-benetan.

Mapa berria eta finantzaketa-sistema berria

Toki Administrazioaren Erreformaren Foru Legean, lau alderdiren gobernuaren akordio programatikoa sinaturiko erreforma giltzarrienera bat, eskumen-esparru berri bat ezartzen da,

finantzaketa-eredu berriaren oinarriak definitu eta 12 eskualdetan oinarrituta toki-mapa berria planteatzeaz gain.

Testuan, udalerriaz gaindiko eskumenak bideratzen dira, tokiko mapa berrantolatzen da, eta finantzaketa-sistema berriaren oinarriak finkatzen dira, Foru Komunitateko lurralde-eremu ezberdinen arteko desoreka murriztearren eta Nafarroako herritarrekiko zerbitzuen estaldura hobetzearren.

Gaur Nafarroako Parlamentuak onartu baino lehen, legeak Toki Erakundeen %62aren babes jaso zuen, testua ekainean NUKFeren batzarrean bozkatu baitzuten.

Erreforma onartzearekin, prozesu berri bat irekiko da, legeak diseinatzen dituen aldaketak sakontzeko; aldaketa horiek Nafarroa osoko toki-agenteen parte-hartzearekin eraiki behar dira.

Lurralde-orekarako lankidetzak

Funtsezko ildoen artean, Lege berrian udalerriak Nafarroako toki-instalazioaren oinarri bezala agertzen dira, eta kontzejuen eta udalerraren arteko lankidetzak bultzatzen du, udalerririk txikien iraunkortasuna bermatzeko eta kasu guztietan zerbitzu egokiak emateko.

Halaber, bi erakunde-mota berri sortzea proposatzen du, Toki Instalazioaren egitura arrazionalizatzeko aldera: Plangintza Orokorreko mankomunitateak -toki-erakundeen eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzak beharrezkoa duten zerbitzuetarako- eta eskualdeak -udalerriez gaindiko zerbitzuak bateratzeko-.

Lehen aldiz, lege honen bitartez, udalerriez gaindiko erakundeetan eskumenen banaketa zehaztuko da, legea zehatz-mehatz betetzea bermatuz. Eskualdeek gutxienez bost eskumen izango dituzte: gizarte-zerbitzuak, altako ur-hornidura, hondakinen kudeaketa, lurralde-antolamenduaren diseinua eskualde-mailan eta zerbitzu administratiboak, udalerririk legeak ezarritako biztanle-kopuru txikienera iristen ez diren kasuetan. Horrez gain, eskualdeek beste eskumen batzuk beren gain hartzeko aukera ematen du, inplikaturiko udalerririk delegatuta.

Bestalde, Legeak finantzaketa-sistema berria proposatzen du, aurrerantzean Toki Ogasunen Funtsa Toki Ogasunen partaidetzaren kopuru finkoa izango baita Nafarroako zerga-sarreretan; era berean, finalista izeneko diru-laguntzak Nafarroako Gobernuak Udalen esku utzitako zerbitzuak ehuneko ehun finantzatuko dituzten moduluek ordezkatzeko dituzte; eta transferentzia arruntzen funtsa banatzeko formula berria ezarriko da, lurralde-orekaren eta gizarte-kohesioaren inguruko irizpideen garrantzia indartuko duena.

Gogoratu behar da, Legea onartu ondoren, Nafarroako Toki Administrazioa berritzeko prozesuak aurrera jarraitzen duela, eta etorkizunean erabaki beharreko alderdi garrantzitsuenen artean nabarmendu daitezke finantzaketa-sistema berria zehaztea eta hainbat lege sektorial erreformaren proposamenetara egokitzea.